

ETXARRI ARANAZKO MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Etxarri Aranazko herri-bideen sarea etxarriar guztien ondarearen zati bat da. Udalbarrutiko mendi eta soroak kontserbatu eta haien aberastasuna eskuratzeko ezinbesteko elementua da. Era berean, funtsezko elementua da herritarren arteko komunikaziorako eta bisitarien zein ibiltarien joan-etorria errazteko. Kontserbazio-egoera onean egoteak onura handia dakarkie bizilagunei.

Etxarri Aranazko herri-basoko pistak eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkotzat jo da haien erabilera arautzea, hiru helburu hauek kontuan hartuta: Etxarri Aranazko ondare naturaleko balioak babestea, erabiltzaileek— etxarriarrek bereziki— basoa zein bideak modu egokian erabil ditzaten lortzea eta horiek erabiltzeko moduan mantentzea.

Horrenbestez, Etxarri Aranazko Udalak ordenantza hau onetsi du:

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da Etxarri Aranazko Udalaren pista eta bide publikoen erabilera arautzea indarra duen araudiarekin bat, baita tasa bat ezartzea ere haiek erabiltzeagatik.

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira auzoetako bideak eta lurzati berrantolamenduko bideak, gehienbat herritar talde batek erabiltzen baditu, beren etxeetara edo beren nekazaritzako, abeltzaintzako eta/edo basogintzako ustiategietara, belaietara edo baratzetara joateko, bai eta aisialdirako eremuak ere.

2. artikulua. Mendi-bideen kategoriak

Erabilera nagusia zein duten, Etxarri Aranazko mendiko bide publikoak kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. 2 metro zabal edo gehiago duten bideak.

a) Lurra edo zoladura zurruna duten mendi-pistak (hormigoia edo zabor-legarra). c) Esate baterako, San Adriango, Ahuntzetxeko eta Altzituertako pistak, hermendiaren gainean mugarren lerrotik kanpora daudenak, mendi alde handietara ailegatzeko nahiz inguruko herriekin komunikatzeko erabiltzen direnak. Erabilera asko izaten dituzte: basogintza, abeltzaintza, turismoa, ehiza etab.

c) Zoru malgua (asfaltoa) duten mendi-pistak, adibidez, Epeleko pista. Pista horiek hermendiaren gainean mugarren lerrotik kanpora daude, eta mendi alde handietara ailegatzeko nahiz inguruko herriekin komunikatzeko erabiltzen dira. Erabilera asko izaten dituzte: basogintza, abeltzaintza, turismoa, ehiza etab.

c) Egurra ateratzeko bideak eta bide-adarrak: sareko egitura meheena osatzen dute; gehienetan helburu bakarra dute, gehienetan zura ateratzea edo norbanakoen lurzatietan sartzea. Askotan noizean behin baizik ez dira erabiltzen, eta denbora luzez ez dira ibilgailuak sartzekoak.

2. 2 metro zabal baino gutxiagoko bide meharrak.

d) Orgabide zaharrak eta bidexkak, erabilera eta eginkizun bat baino gehiago dutenak, lasterbideak eta turismorako bidexkak, hezkuntza eta kirol bideak barne.

Azpimarratzekoa da gaur egun Etxarri Aranatzen bi bidexka homologatu daudela, honako hauek: "Haritz monumentalak" eta "Trikuharrien ibilbidea".

Sare horrek aukera emango du bertan aisialdi, hezkuntza eta kirol jarduerak egiteko, herritarren onarpena dutenak eta ingurunearekiko errespetua bermatzen dutenak.

3. artikulua. Kontserbazioa.

Etxarri Aranazko Udalak zainduko du 2. artikuluan zehazten diren bide eta mendi-pistak beti egon daitezzen erabiltzeko moduan.

Horretaz gain, behar diren neurriak hartuko ditu galdu ez daitezzen interes publikokotzat jotzen diren bestelako bideak (besteen ardar direnak, bidexkak...), eta horretarako propio sortutako organo eskudunak egokitzen dituenak. Horien artean honako hauek egongo lirarteke: "Haritz Monumentalak", "Trikuharrien Ibilbidea" eta Etxarri Aranatz aldameneko herriekekin lotzen dutenak (Arbizu, Bakaiku, Lizarraga...), bai eta sor daitezkeen beste batzuk ere.

Lehengoraturako eta behar bezala balizaturako eta seinalezaturako bideei dagokienez, udalak egoera onean egon daitezzen zainduko du.

Horretarako, udalak behar diren mantentze-lanak egingo ditu balizaturako eta homologaturako bidexketan, egoera onean egon daitezzen bermatzeko eta kasu kasuko kirol federazioen araudiak eta eskakizunak betetzeko. Mantentze-lanak egiteko orduan, bidexkak eta trail-ibilbideak erabili eta kudeatzen dituzten elkarteek lagunduko dute, betiere bi aldeek sinaturako lankidetzaren hitzarmenetan ezarritakoari jarraituz.

Nolanahi ere, mantentze-lanak udalaren aurrekontuan baliagarri dagoen zenbatekoaren menpe egongo dira.

Bide publikoekin eta erabilera publikoko beste lur mota batzuekin muga egiten duten finken jabeek bide eta pista horien mugan dauden itxitura guztiak garbi-garbi edukiko dituzte, eta jabetza pribatutik atera eta itxituraren bertikala gainditzen duten oztopo guztiak kenduko dituzte. Partikularra itxituraren garbiketaz arduratzen ez bada, udalak egingo du eta lan horien kostua kobratuko dio partikularrari.

Hiru metroko zortasun-eremua errespetatuko da bidearen kanpo aldetik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 112.2 artikuluan jasotzen den gisara.

4. artikulua. Ibilgailu motordunetan ibiltzeko debeku orokorra.

4.1. 2.a) eta b) artikuluan zehazten diren Etxarri Aranazko pistetan debekatuta dago ibilgailu motordunak baimenik gabe ibiltzea, non ez diren nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basozaintzarekin, larraldiekin edo salbamenduarekin edo udalak baimendutako bestelako jarduerekin zerikusia duten ibilgailuak.

Baimendutako ibilgailuek bide bazterretan eta ohiko puntuetan aparkatu ahal izango dute, betiere modu ordenatuan egiten badute, eta beste ibilgailu batzuen joan-etorriak

oztopatu edo arriskuan jartzen ez badituzte. Erabat debekaturik dago areketetan, bidearen erdian edo bihurguneetan edo bertatik zirkulatzen duten gainerako ibilgailuentzat ikuspen murriztuko malda gainaldeetan, baldin eta trafiko-istripuak izateko arrisku handia badute.

Baimendu gabeko ibilgailuek hartarako egokitutako aparkalekuetan aparkatu beharko dute. Gaur egun, igerilekuen ondoan dagoen aparkalekuan.

4.2. Debeku da 2.2. artikuluan aipatzen diren bi metro zabal baino estuago diren pistetan barna ibilgailu motordunetan ibiltzea, bai eta pistetatik kanpora mendian barna ere, non ez diren nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin edo behar bezala baimendutako jarduerekin zerikusia duten ibilgailuak. Era berean, debeku da pistetatik eta behar bezala seinaleztatutako tokietatik kanpo ibilgailuak aparkatzea.

5. artikulua. Pistak eta bideak erabiltzeko araubide orokorra.

2. artikuluan zehaztutako pistak nolakoak diren, hartarakoxe erabiliko dira, eta debeku dira haien erabilera ezohiko eta gehiegizko guztiak, bideetan kalte egiten dutenak edo trafikoaren segurtasunaren kontrakoak.

a) Debaturik dago oihaneko gaiak eta eraikuntzako materialak pista horietan barna herrestan eramatea, salbu eta 2.1.c) artikuluan adierazitako bide-adarretan eta egurra ateratzeko bideetan, edo, aukera hori aurreikusita badago, ustiapena arautzen duen pleguan. Era berean, debekaturik dago kate bidezko ibilgailuen joan-etorria ere, non eta ez diren pistak berak garbitu eta hobetzeko erabiltzen direnak edo udalak eta partikularrek beren finketan obrak edo hobekuntzak egiteko erabiltzen dituztenak.

b) Bide, pista nahiz areketan debeku da lurra, harriak, hondakin mota guztiak eta nekazaritzako edo basogintzako produktuen hondarrak bota edo uztea.

Era berean, baimenduta eta aribidean dauden aprobetxamenduetatik datozen oihan produktuak soilik aldi baterako biltegitatu ahal izango dira horretarako gaitutako eta baimendutako kargatzeko tokietan.

c) Bide, pista eta haien inguruko aparkalekuetan debeku da nekazaritzako, basogintzako edo bestelako produktuen hondarrak erretzea.

d) Espresuki debeku dira lehiaketak eta lasterketak, Administrazioak baimendu ez baditu, baita paseoan dabilzanentzat, txirringidularientzat, etxeko animalientzat eta basa faunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen gidatzeko modu bortitz guztiak. Salbuespen gisara, Etxarri Aranazko Udalak baimena ematen ahalko du taldeka ibilgailu motordunetan antolatzen diren lehiaketa ofizialak eta jarduera turistikoak egiteko.

e) Era berean, erabat debekatuta daude administrazioak baimendu gabeko turismo-jarduerak, hala nola mendiko bizikletan egindako jaitsierak, 50 lagunetik gorako bisita gidatuak edota nork bere kasa egindakoak, baldin eta faunan edo floran arazo edo kalte handiak eragin baditzakete, bai eta herritarren jarduera tradizionalen garapenean eragin negatiboa izan badezakete (ehiza, abeltzaintza eta basoko aprobetxamendua zein aprobetxamendu mikologikoa).

f) Horrela egingo da Etxarri Aranatzen etxeko animaliak edukitzea, txakurrak bereziki, arautzen duen ordenantzan (28. NAO on argitaratu zen, 2003ko martxoaren 5ean) eta Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren arabera (102. NAO on argitaratu zen, 2011ko maiatzaren 27an).

g) Errespetatu beharko dira ordenantza honetan zehaztutako pistetarako pisuaz eta kargaz bezainbatean adierazten diren mugak.

6. artikulua. Pisu mugak

6.1. Egun arruntetan, pisu eta karga muga hauek errespetatu beharko dira:

- a) 2.1.a) artikuluan zehaztutako pista: pista horietan ezin da inolaz ere 40 tona gordineko karga gainditu (ibilgailua gehi karga guztira).
- b) 2.1.b) artikuluan zehaztutako pista: pista horietan ezin da inolaz ere 30 tona gordineko karga gainditu (ibilgailua gehi karga guztira).
- c) Errespetatu beharko dira 2.1.c) artikuluan zehaztutako pistetarako (egurra ateratzeko bideak eta bide adarrak) pisuaz den bezainbatean adierazten diren muga hauek: 25 tona, baldin eta zoru naturala guztiz lehor badago, eta 20 tona, zorua bustirik dagoenean, betiere lur-giroa badago eta euririk egiten ez badu.

6.2. Euria ari duen egunetan eta/edo zorua guztiz lehor ez dagoenean edo lohia dagoenean, debekatuta dago:

a) edozein motatako mendi pistan ibiltzea (2.1.a eta b) motordun ibilgailuekin, baldin eta haien pisua gehi karga 10 tonatik gorakoa bada.

b) 2.1.c) artikuluan zehaztutako bide adarretan eta egurra ateratzeko bideetan eta 2.2. artikuluan zehaztutako bideetan, guztiz debekatuta dago.

7. artikulua. Baimentzeko prozedura.

a. Etxarri Aranazko pistetan erabiltzeko baimena Udalak emango du. San Adriango erromeria egin aurreko eta ondoko egunetan eta San Adrian egunean bertan ez da beharrezkoa izango baimena izatea San Adriango pistan ibiltzeko.

b. Baimen-eskabideak ofizialki ezarritako eredian aurkeztuko ditu ibilgailuaren titularrak; haietan datu pertsonalak, ibilgailuen gainekoak eta eskatzen den baimen motari dagozkionak emanen dira.

c. Honako hauetarako eskatu ahal izango dute baimena:

- Etxarri Aranazko erroldatutako herritarren ibilgailuetarako.
- Udalerrian erregistraturiko ibilgailuetarako.
- Etxarri Aranazko etxebizitza propio dutenen edo maizter daudenen ibilgailuetarako.
- Mendi-pista sarbide bakarria duten luzatien kasuan (esate baterako, Altzitueta edo Epele), haien jabeen eta/edo errentarien ibilgailuetarako. Kasu horretan, lurzatirako sarbidea den mendi-pistara mugatuko da baimena. Errentarien kasuan, lurzatiaren jabeari dagokio baimena eskatzea.
- Mendi aldera ibilgailuekin sartzeko beharra egiaztatzen duten beste pertsona batzuen ibilgailuetarako, betiere ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz.
- Mendi aldean kokatutako baserri edo etxebizitzetako bisitarien ibilgailuetarako, baldin eta haietan mendi-pistetatik bakarrik sar badaiteke. Kasu horretan, bisitatu behar den etxebizitzaren titularrak aurkeztu beharko

du baimena. Kasu horretan, baserrirako sarbidea duen mendi-pista barrena zirkulatzeko baimena eskatuko da soilik. Baimena emateak ez dakar, inolaz ere, ibilgailua gune publikoan aparkatzeko eskubiderik. Lurzati pribatuan aparkatu beharko da. Baimendutako ohiko bisitarien kasuan, bisita-txartela iraunkorra eskatu ahal izango da.

- Ahuntzetxeko bisitarien ibilgailuak, baldin eta erreserba egina eta baimena badute.

d. Baimen eskabideei buruzko ebazpenak Alkatetzak emango ditu.

e. Baimena ibilgailu edo jarduera ekonomiko bakoitzeko, zer den bidezkoa, banakako txartel bat emanaz gauzatu da, 1. eranskinean aurreikusten diren kasu eta moten arabera. Ibilgailu baimenduen erregistroa sortuko da, eta hari dagozkion zergadunen errolda ere bai. Zentsu horretako hasierako sarrera ofizioz egingen da, baimena eman ondoren. Baimen-txartela ondo ikusteko eta irakurtzeko moduko tokian jarri beharko da, ibilgailuaren aurreko beiran.

f. Utziz gero, edo aldaketaren bat eginez gero, horrelakoak gertatzen diren egutegiko hiruhileko berean egin beharko dute horien gaineko deklarazioa aitzineko idatz-zatian aipatutako erroldako subjektu pasiboek, eta horiek indarra hartuko dute artikuluko honen c) idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz, salbu eta tributu-kuotaren sorrarazpenari, likidazioari eta dirusarrerari dagozkienak, horretarako ordenantza honen 19. artikuluan xedatzen denari jarraituko baitzaio.

8. artikulua Garraioa, herriko pista edo bideetatik zura ateratzeko aprobetxamendu pribatuetako.

Erabat debekaturik dago oihaneko gaiak eta eraikuntzako materialak arrastaka eramatea, dela ibilgailu motordunen bidez edo animaliak erabiliz, baldin eta gaiok behar bezala eta ibilgailu egokian kargaturik ez badaude. Salbuespena egin ahal izango da 2.1.c) artikuluan adierazitako bide-adarretan eta egurra ateratzeko bideetan, bai eta ustiaketa arautzen duen pleguan aukera hori aurreikusita badago.

Debeku hau haustea zorrotz zehatuko da. Egindako kalte guztien ordaina eskatzeaz gain garraiatutako oihaneko gaiak balio dutenaren halako bi joko duen isuna ordainaraziko da.

Zuraren garraioa edo makina astunen pasatzea egingen da eguraldi ona dagoenean. Hori dela eta, eguraldi ontzat joko da kamioen gurpilak lurra zapaldu eta lokatzarik egiten ez bada.

Halaber, atera beharreko lotearen balioaren %15eko fidantza jarri beharko da, Nafarroako Gobernuaren erreferentzia-balioen taulen arabera.

Aurretik adierazitako baldintzak kasuan kasuko baso-aprobetxamenduetarako pleguetan aldatu ahal izango dira.

9. artikulua. Eskumena eta baimenaren iraunaldia.

9.1. Etxarri Aranazko alkateak emango du Etxarri Aranazko pistetan barna ibiltzeko baimena, 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

9.2. Baimenek bost urteko balioa dute, betiere emateko orduan betetzen ziren baldintzak eta betekizunak betetzen badira. Horrela izan ezean, txartelak ez du baliorik izango eta udalari itzuli beharko zaio eta bajaren berri eman. Udalak eskumena du txartelari baja eman eta itzultzea eskatzeko.

Ahuntzetxera edota baserrietara egin nahi diren bisiten kasuan, baimena soilik bisita-egunerako emango da. Gehienez ere bost baimen eman ahalko dira, ohiko bisitarienentzat.

EZ dira hurrengo urtea arte luzatutzat joko, salbu eta uzteko edo ofizioz utzarazteko deklaraziorik egiten bada (1. eranskinean adierazitako kasuetan izan ezik).

10. artikulua. Zerbitzu publikoak.

Ordenantza honen debekuetatik salbuesten dira erakunde eta ente publikoen ibilgailuen joan-etorria, beren egitekoan ari direnean, hala nola polizia, suhiltzaile, basozain eta abarrena.

Inguruabar berezietan, aurreko lerroaldean aipatutakoez bestelako egoera batzuk ere aintzat har daitezke, esaterako: herri lanak, interes publikoko edo orokorreko jarduerak –Administrazio Publikoek edo horien entitate instrumentalek sustatuak–, larrialdi kasuak, istripuak, hondamendiak, etab.

11. artikulua. Ibiltzeko gehieneko abiadura.

Etxarri Aranazko pista guztietan gehieneko abiadura 20 km/ordua izango da.

12. artikulua. Pisten egoerari eta inguruabarrei dagokien abiadura.

Istripu-arriskuak gutxitzeko, eta oinezko, txirrindulari eta animaliei trabarik ez egiteko, gidariek abiadura egokitu beharko dute, maldetan eta toki arriskutsuetan behar adina motelduz, baita azientak hurbil dabiltzanean eta oinezkoak agertzean ere, edo denbora lehorra denean, pistetan hautsa pilatzen baita.

13. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna.

Erabiltzaileek beren gain izanen dute ordenantza honetan aipatzen diren arauak ez begiratzeagatik pistetan egiten dituzten kalteen erantzukizuna.

14. artikulua. Pisten inbentarioa.

Etxarri Aranazko Udalak 2. artikuluko pista guztien eta haien kategorien inbentarioa eguneratuko du etengabe. Inbentario horrek balio izan dezake pista bakoitzerako tona kopuru eta gehieneko abiadurak zehazteko, ezarritako mugapenez gainera.

Horretarako, udalak kasuan kasuko kartografia digitala izango du, bere web-orriaren bidez kontsultatu ahal izango dena.

Kartografia horretan, aparkalekuen kokalekua ere zehaztuko da, batez ere baimendu gabeko ibilgailuena. **II. Eranskina**

15. artikulua. Arau-haustek eta kontrola.

Ordenantza honetan ezarria urratzea arau-haustetzat joko da.

Udalak ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dela zainduko du; nolana ere, bertako herritarrek ere modu aktiboan lagundu ahal izango dute ordenantza honetan ezarritakoa betearazten, arau hausteren bat antzeman ez gero, haren berri eman ez.

16. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honetako arau-haustek isuna izanen dute zehapen; 200,00 eurokoa izanen da gehienez ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zehapenak ezartzea eragindako kalte-galeren ordainetik aparte izanen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 117. artikuluan ezarriari jarraituz.

Isunen dirua eta kalte-ordainak biltzeko, administrazioko premiamendu bideari ekinen zaio, borondatez ordaintzen ez bada.

17. artikulua. Zehatzeko prozedura.

Arau-haustea ekar dezaketen egitateen berri emanen zaio udaleko alkatetzari; horrek behar den zehapen espedientea abiaraziko du, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari eta Zehapen ahalmenaren erabilera arautzen duen Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuari jarraikiz.

Etxarri Aranazko Udaleko alkatetza da prozedura ebazteko eta zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

18. artikulua. Tasaren zerga-egitatea.

Tasa honen zerga-egitea da:

a) Etxarri Aranazko Udalaren pista eta bide publikoen erabilera eta haien gaineko mantentze, zaintze eta hobetze lanen zerbitzu publikoa egitea.

b) 19. artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboek pistak maizago eta modu berezian erabiltzea.

19. artikulua. Salbuespenak.

11. artikuluan aipatzen diren ibilgailuak tasa ordaintzetik salbuetsirik daude.

20. artikulua. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, eta orobat nortasun juridikorik gabeko entitateak, unitate ekonomiko bat edo ondare berezi bat osatzen dutenak, baldin eta:

1. 9. artikuluan aurreikusitako baimena eskatzen duten ibilgailuen titularrak badira eta erabilera hauek egiten badituzte:

-Bideak, baldin eta ibilgailu motordunen bidez ateratzen badira.

-Bideak, baldin eta ibilgailu motordunen bidez ateratzen badira.

-Beste batzuk, besteak beste, kamioiak, furgoiak edo furgonetak, kamioi traktoreak, atoiak, atoi erdiak, ibilgailu artikulatuak, errepideko trena, ibilgailu egokituak, ibilgailu misto egokitzen ahal direnak, ibilgailu bereziak, obretarako traktoreak, obretarako berez dabiltzan makinak nahiz atoian eramana, zerbitzuetarako traktorea, gurdi traktorea, zerbitzuetarako makina berez ibiltzen dena nahiz atoian eramana, dumperra, garabiak, hormigoi makina, hondeamakinak, atzera-hondeamakinak, pala kargatzaileak, nibelatzeko makina, trinkotzaileak, ibilgailu biltontzidunak, lohi-ateragailuak, estazio eraldatzaile mugigarriak eta abar.

-Ehiza aprobetxamenduak.

-Nekazaritzan, abeltzaintzan, oihangintzan edo oro har jarduera ekonomiko batean aritzeko.

2. Etxarri Aranatzeko kokatuak izan ala ez, jarduera ekonomikoen titularrak, horietan aritzeko beharrezkoa baldin bada Etxarri Aranazko pista eta bide publikoetan maiz ibiltzea titularrarenak ez diren ibilgailuetan. Halakoetan jardueraren titular bakoitzeko txartel bat eta bakarra emango da, ustiapenean erabiltzen diren garraio eta hornidura guztietarako, baldin eta titularraren beraren ibilgailuetan egiten ez badira eta horiek artikulua honen 1. idatz-zatiko letraren batean sarturik ez badaude.

21. artikulua. Tributu-kuota.

Etxarri Aranazko pista eta bide publikoak mantentze, zaintze eta hobetze lanen zerbitzua egiteagatik eskatu beharreko tributu-kuota tarifen III. eranskinean xedatzen denari jarraikiz zehaztuko da.

22. artikulua. Sortzapena, likidazioa eta dirubilketa.

a) Oihangintzako produktuak bide eta pista horietatik ateratzeko egiten diren joan-etorriak,

b) Epaitzen aprobetxamendua.

c) Eraikuntzako materialak, ondasunak eta ekipoak pista eta bide horietan barna garraiatzea,

d) Makina handiak bide eta pista horietan barna garraiatzea eta/edo ibiltzea

e) Ibilgailuen joan-etorria, jostetarako edo turismorako.

f) Ibilgailuen ibilia, jarduera batean aritzeko.

a) Tasa honengatik eskatzen diren kuotak sorrarazi, likidatu eta bilduko dira baimena ematen den unean eta hemendik aurrera, ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean

sorraraziko dira eta urteko lehen hiruhilekoan likidatu eta bilduko dira, horretarako ordainagiri helbideratua erabiliz.

b) Kuotak ez dira hainbanatuko urte bat baino guttiagoko aldietan, kontuan hartu gabe sarrera, uztea edo aldaketa noiz gertatzen diren.

23. artikulua. Bideen erabilera berezia.

Bideen erabilera berezia da pisu gordina 20 Tm baino handiagoa duten ibilgailuek egiten dutena, nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetan obrak egitean edo oihangintzan aritzean.

Erabilera horretarako Udalaren baimena behar da; beharrezkoa izanen da jakitea jabea edo sustatzailea nor den, kamioia zein den, zenbat tona egiten dituen eta zenbat bidaia egin behar dituen. Hartara, Udaleko langileek agerraldia egingen dute bidea erabili aurretik eta bidea erabili ondoan.

Tasa ordaindu beharko da bideen erabilera bereziagatik; haren zenbatekoa ordenantza honen III. eranskinean zehaztuko da.

Orobat, 1.000 euroko fidantza pausatu beharko da udalean, erabiltzen den bidean eragiten ahal diren kalteen berme.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregistroan agertzen diren ibilgailuek kasuan kasuko tasa ordaindu beharko dute, ordenantza honetan ezarri epean eta moduan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan jasota ez dagoen orotan aplikatzekoak izanen dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta indarra duen legeria sektoriala.

Ordenantza honek 2018ko otsailaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA. EREDUAK

II. ERANSKINA KARTOGRAFIA: Mendi- pisten inbentarioa

III. ERANSKINA: TASAK

*Txartela tramitatzeak dakartzan gastuengatik tasa: 10 euro txartel bakoitzeko.

* Tasa, jostetarako, turismorako edo ehiza aprobetxamenduetarako ibilgailuen joan-etorriagatik: 20 euro/urtea

Tasak ordaintzetik salbuestea, baldin eta 7. artikuluetan aipatzen diren kasuetan, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta titularra Etxarri Aranatzen erroldatuta badaude.

*Tasa, ibilgailu astunen joan-etorriagatik: 30 euro/urtea.

Oihangintzako ustiapenetatik heldu den egurra garraiatzeko ibilgailu astunentzat nahiz eraikuntzako materiala, makineria astunak edo ondasunak daramatzaten ibilgailuen joan-etorriagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturik egon ala ez.

Tasak ordaintzetik salbuestea, baldin eta 7. artikuluetan aipatzen diren kasuetan, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta titularra Etxarri Aranatzen erroldatuta badaude.

*Txartela galdu duelako edo lapurtu diotelako berritu behar duenak 5 euroko tasa ordaindu beharko du.

IV. ERANSKINA: BESTE ERABILERA BATZUK

36/1994 Foru Dekretua, otsailaren 14koa, lurzoru urbaniezinean barna ibilgailu motordunekin antolatutako jarduerak eta ibilgailu motordunen zirkulazio librea arautzen dituena. Debeku da zirkulatzea landetan barrena edo 2 metro zabal ez diren bideetan barrena, edota suebakietan nahiz egurra ateratzeko bideetan barna. Debeku da berariaz debekatua dagoen bide edo pistetan barrena. Aldi baterako debekuak ezar daitezke, ingurumenari kalte egiteko arriskua dagoenean. Jarduera antolatutzat hartuko da 10 ibilgailu baino gehiago biltzen direnean, orduan baimena beharko baita. Debeku da zirkulatzea halako tokietan barrena: Erreserba Integralak, Natur Erreserbak, Aisiarako Natur Erekuak, Altxonbideak, Donejakue bidea, galtzada historikoak, Plazaolako bidea, Basa Fauna babesteko Erekuak, ibai ibilgailuak, urmaelak, urtegiak edo hezeguneak.